Bestelako Xedapenak

OGASUN ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

1590

EBAZPENA, 2009ko martxoaren 4koa, Funtzio Publikoaren zuzendariarena, Administrazioarekiko Auzietako Gasteizko 1 zenbakiko Epaitegian bideratutako 191/08 prozedura laburrean alderdi bezala ager daitezen, interesdun izan daitezkeenei epea jartzen diena.

Ebazpen honen bidez argitara ematen da Funtzio Publikoaren zuzendariak 2009ko martxoaren 3ko Ebazpena eman duela non xedatu den Administrazioarekiko Auzietako Gasteizko 1 zenbakiko Epaitegiari bidal dakiola honako prozedurari buruzko espediente administratiboa:

191/08 zenbakiko prozedura laburtua: ELA sindikatuak jarri duen administrazioarekiko Auzi-errekurtsoa Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 2008ko urtarrilaren 28ko Aginduaren aurka doa, I-A, I-B, II-A, II-B, II-C eta III-A berariazko osagarria duten mailako lanpostuak kultura-ondarearen ezagutzako arlokoak -Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta Erakunde Autonomiadunetako karrerako funtzionarioentzat gordeta daudenak- betetzeko lehiaketarako deialdia eta berariazko oinarriak onartzeko dena.

Prozedura honek eragina izan dezake aipatutako lehiaketaren ebazpenean.

Horregatik guztiagatik eta Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 49.1 artikuluan agindutakoarekin bat etorriz, honako hau

EBATZI DUT:

1.– Aipatutako espedientean interesdunak izan daitezkeenei bederatzi eguneko epea jartzea, Administrazioarekiko Auzietako Gasteizko 1 zenbakiko Epaitegian -paragrafo honen aurrekoetan aipatutako prozedurako alderdi bezala- aurkezteko aukera izan dezaten.

2.– Honako hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko martxoaren 4a.

Funtzio Publikoaren zuzendaria,
FERNANDO TOÑA GUENAGA.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

1590

RESOLUCIÓN de 4 de marzo de 2009, del Director de Función Pública, por la que se emplaza a los posibles interesados en el procedimiento abreviado 191/08 seguido ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo n.º 1 de Vitoria-Gasteiz a fin de que puedan personarse como parte en el mismo.

En virtud de esta Resolución se hace público que el Director de Función Pública, con fecha de 3 de marzo de 2009 ha dictado Resolución por la que se dispone la remisión al Juzgado de lo Contencioso-Administrativo n.º 1 de Vitoria-Gasteiz el expediente administrativo relativo al siguiente procedimiento:

Procedimiento abreviado 191/08: recurso contencioso-administrativo interpuesto por el sindicato ELA contra la Orden de 28 de enero de 2008, de la Consejera de Hacienda y Administración Pública, por la que se aprueba la convocatoria y las bases específicas del concurso para la provisión de puestos de trabajo de niveles de complemento específico I-A, I-B, II-A, II-B, II-C y III-A, pertenecientes al dominio de conocimiento de patrimonio cultural, reservados al personal funcionario de carrera de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y sus Organismos Autónomos.

Este procedimiento puede afectar a la resolución del citado concurso.

Por ello, de conformidad con lo preceptuado en el artículo 49.1 de la Ley Reguladora de la Jurisdicción Contenciosa-Administrativa, redactado por la Ley 29/1998 de 13 de julio.

RESUELVO:

1.– Emplazar a los posibles interesados en el referido expediente para que puedan comparecer en el plazo de nueve días ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo n.º 1 de Vitoria-Gasteiz y personarse como parte en el procedimiento antes citado.

2.– Ordenar la publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 4 de marzo de 2009.

El Director de Función Pública,
FERNANDO TOÑA GUENAGA.